



Herriko argiteri berria jartzen ari da

Duela gutxi hasi dira Agoizko argiteri publikoa berri-zeko, hobetzeko eta seguruago egiteko obrak.

Proiektua 521.007,63 euroan (BEZa barne) esleitu zitzaien "Montajes Eléctricos Pamplona S.A" enpresari 2018ko abuztuan, eta oraingo argiteria aldatzean datza, LED argiak jarritz, lehengo argiak baino ekologikoak eta ekonomikoagoak baitira. Guztira 1.092 argi-puntu aldatuko dira, herrian dauden ia guztiak.

Herriko argiteria hobetzeko berealdiko proiektu hau Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuarekin (IDAE) ailegatutako akordioari esker martxan jarri ahal izan da, izan ere, entitateak obra osoaren gastua estaltzeko moduko interesik gabeko mailegua (entitate publikoa baita) eman zion Agoizko Udalari.

Aipatutako mailegua hamar urtetan ordaindu beharko da, hilabeteko kuoten bidez.

Argiak aldatzearekin kontsumo elektrikoa aurreztuko da (urtean 80.000 bat euro), eta aurreztutakoarekin mailegua ordaindu ahalko da, argiteri publikoa berrituta eduki eta energiaren kontsumo publikoa optimizatzeaz gain.

Argi guztiak hiru hilabete eta erdian aldatuta egonen dira aurrikusita dago.



Berriro hasi da jubiloteka zerbitzuaren aktibitatea

Agoizko Udalak jubilotekan ematen duen zerbitzu berriaren aktibitatea berriro hasi da, behin udako etenaldia bukatutik.

Jubiloteka zerbitzuaren helburua da pertsonen autonomia sustatzea eta haien egoera bio-psiko-soziala hobetzea. Halaber, zahartzearekin batera gertatzen

den hondatze fisiko, sozial eta kognitiboa galaraztea du helburu, mugimenduaren garapena lantzeko aktibitate fisiko (gimnasia, gerontogimnasia, erlaxazioa) eta estimulazio kognitiboaren (memoria lantzeko arketak, tailerrak eta jokoak) bidez, eta horrela haien ongizatea bultzatzea.

Jubiloteka (Gizartetxeko beheko solairuan dago) asteleheneetik ostiralera dago zabalik, 10:00 - 13:00 bitartean. Bertara joan ahal izateko baldintzak dira: 65 urte beteta edukitzea, Agoitzen erroldatuta egotea eta menpekotasun larririk edo handirik aitortuta ez edukitzea. Hileko 30 euroko kuota du, eta izen-emateak udalaren bidez edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren bidez egin behar dira.

Jubiloteka "pilotu" fasean dago, eta udalak zerbitzua lehiaketara ateratzeko asmoa du, urtarrilaren hasieratik aurrera. Aktibitatea egonkortuta, lan-sarean aritu nahi da, osasun etxearekin eta Kanpondoa kirol-gunea kudeatzen duen enpresa publikoarekin.



Udalen topaketa, Iratiko Natur Bideari buruzko zehaztasunak ezagutzeko

El Irati trenbidea berreskuratzeko eta natur bidea bilakatzeko proiektua inoiz baino biziago dago. Pasa den abuztaren 6an maiatzaren, 26an egindako hauteskundeetatik ateratako udal korporazio berriak Irunberrin elkartu ziren orduarate aurreko udalek hartutako konpro-

misoak berresteko.

Bilkuran aipatutako trenaren ibilbideak zeharkatzen zituen herriko udalen ordezkariak elkartu ziren: Zangoza, Ledea, Irunberri, Urraulbeiti, Agoitz, Urrotz eta Lizain-Arriasoitikoak, hain zuzen

ere. Cederna Garalur elkarteko zenbait teknikari bertaratu ziren, proiektuaren zehaztasunak emateko eta oraingo egoera zein den (Transizio Ekologikoko Ministerioari dirulaguntza tramitatzen ari da) azaltzeko.



Pasa den uztailaren 8an izandako uholdeek kaltetutako lekuentzako laguntza

Pasaden uztailaren 8an izandako eurite bortitzen ondorioz Nafarroako erdialdean kalteturik suertatutako herriek gure herriko elkartasuna jaso dute.

Agoizko Udaleko Osoko Bilkurak berriki onetsi du aurkeztutako proposamen bat. Haren bidez elkartasuna adierazten die uztailaren 8an Nafarroako erdialdean euriteek eta uholdeek kaltetutako eremuko udalerrri eta herritarrei.

Horretaz gain, Agoizko Udalak 800 euroko laguntza emanen du, udalerrri horietan kalteturik izan diren zerbitzu edo azpiegituretan inbertitzeko.



Halaber, dei egiten du herrikoek ere elkartasun keinu bat egin eta bidezko deritzen diru ekarpena sar dezaten kaltetutako udalerriek irekitako edozein kontutan.

Eta modu berezi batean besarkada handi bat eta animoa bidali nahi diogu ezbehar natural horren ondorioz bizitza galdu zuen Zeru Cañada Zorrilla Lakabeko gazte eta Agoizko ikaslea izandakoaren familiari.

TAFALLAKO UDALA

La Caixa ES85 2100 3696 6122 1015 1810
Caja Rural Navarra ES94 3008 0044 4140 3886 8321
Laboral Kutxa ES16 3035 0114 19 114004 4394

ERRIBERRIKO UDALA

La Caixa ES 98 2100 5012 1002 0009 2687

Udaletxeko obrak bukatu dira

Berriki bukatu dira udaletxea zaharberritu eta egokitzeko obrak.

Obraren helburua teilatua konpondu eta iragaitza bihurtzea zen. Obra baliatu dute ere sabaian erabilera anitzeko areto berri bat egokitzeko; eta bertan EL IRATI, S.A.-ri buruzko erakusketa iraukorra egonen da. Halaber, igogailua jarri da, eraikineko udal bulego eta aretoetara igotzeko.

Obrak iraun duten denboraldia aprobetxatu da bulego orokortako antolaketa berria egiteko: mapara bat jarri da publikoari arreta ematen zaion lekuan, eta,

horri esker, herritarrek intimitate gehiagorekin egin ahal izanen dituzte kontsultak eta tramiteak.

Obrak bukatuak, berriro zabaltzea eraikineko albatea, eta, ordutik aurrera, arreta betiko beti bezala ematen hasi da, alegia, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara.

Proiektua Nafarroako Gobernua- ren 2017-2019 Toki Azpiegitureko Planean aurrikusitakoa zegoen, Construcciones Leache enpresak egin du. 197.700 euro + BEZa aurrekontua izan du.



Jaietako balantzea

Agoizko jaiak abuztuaren 10ean hasi eta hamalauan bukatu ziren. Giro onean igaro ziren, eta udalak antolatutako ekitaldietan herritar askok parte hartu zuten. 91.404 euroko aurrekontua izan zuten, publiko mota guztiari zuzendutako programazioa prestatzeko.

San Migel Abesbatzak, bere 75. Urteurrena zela eta, txupina jaurtiki baino lehen, urtean zehar nabarmendutako talde eta pertsoneri egin zaie errekonozimendua. Aurelio León aretoan egin zen, bigarren urtez. Horretarako prestatutako ekitaldian, gainera, saria ema zitzaion karteletako irabazleei.

Jaietako egun nagusiko goizean, prozesioaren ondoren, dantzak eta erraldoiak, ohikoa den moduan. Eta arratsaldean, berriz, Aspe enpresako pilotari profesional arteko pilota partidarekin gozatzeko aukera egon zen.



Haurraren Egunean Udal Txikiak hartu zuen protagonismoa. Korporazio Txikiak egiten ohi duen ekitaldiaz gain, zapiak banatu zitzairen 2018. Urtean jaio ziren 28 haurrei. Eguerdian, «Agoitz Kantuz» ekitaldia sendotzen ari da, gero eta partaidetza handiagoa baitu, eta ezinbesteko bihurtu da jai egutarauaren barnean.

Asteartean, Gazteriaren Eguna, Kostradaren Kofradia saria eman ondoren, abesbatzako ahots grabeez kontzertu-bermuta eskaini zuen elizako belardian. Emanaldiarekin gogora ekarri eta ospatu nahi izan zuten 1945. urteko abuztuaren 13an zenbait gizonen eskaini zuten estreinako kontzertu hura. San Migel abesbatzaren jatorria izan zen. Arratsaldean, «Puro Relajo» taldearen emanaldia berriro ere arrakastatsua izan zen.

Adinekoen Egunarekin bukatu ziren festak. Hermitas de los Pobres de Maiquetia zahra egoitzako adinekoek gaitariak eta erraldoiak jaso zituzten. Lehenengo aldiz, udal txikiak parte hartu zuen. Ondoren, eskaintza egin zitzaion San Migel patroinari, Bilaketa Ahots eta Instrumentu Taldeak girotu zuena. Parkean aperitiboa eskaini zitzaion Iraunkorrek Txaranga jotzen zuten bitartean (aurten jai egun guztietan jo du). Pilotak bete zuten arratsaldea, Muebles Polke IV. Txapelketa jokatu zelako. Agoizko Simplex taldeak jo zuen plazako dantaldian. Festak bukatuak, heldu den urtekoen zain gelditu gara.

Uztaila eta abuztuko kultur balantzea

Jai aurreko asterako Angiluerreka Elkarteak antolatzen duen programazioa luzea bada ere eta jaietan ere eskaintza handia izanik ere, uztaila eta abuztuan ez da jaitsi kultur aktibitatea.

Kultur Etxean izan zen Sanfermines 78 Gogoan elkarteak sustatutako «Argazkiak Lekuko. Memoria gráfica contra la impunidad» erakusketan 1978ko sanferminetan izandako gertakizun bortitzen eta Germán Rodríguez heriotza eragin zion tragediari emandako erantzunaren irudiak biltzen dira.

Horretaz gain, José Hierro aretoan ikusgai egon ziren XXII. Jai Kartel Lehiaketara aurkeztutako lanak, haurrek Patxi Huartek gidatutako "Udan plastikatzen" tailerrean haurrek prestatu zituztenekin batera.

Mariano García musika bandak (aurten hogeigarren



urteurrena betetzen du) udan eskaintzen ohi duen kontzertua eman zuen aurten ere Nafarroa Behereko plazan. Agoizko Gaitariak, berriz, uztaileko programazioaren azken emanaldiaren arduradunak izan ziren, eta kalejira eskaini zuten karraketan barna.

Angiluerrekak antolatzen duen Garagardo Festa ezinbesteko zita bilakatu da udan, bertan lagun eta koadrila asko elkartzen baitira. Aurten uztailaren 20an izan zen, Merkatuko plazan.



Berdintasunezko eta sexu erasorik gabeko jaien alde

Agoizko Udaleko Berdintasun Arloak, berdinen arteko errespetua eta genero bortizkeriari zero tolerantzia adieraztea bultzatu nahi duenez, bi tailer interesgarri programatu zituen. Jai aurreko astean egin ziren biak, eta berrogeita hamar bat lagunek parte hartu zuten horietako bakoitzean.

Ruth Iturbidek (Giza eta Gizarte Zientzietan doktorea eta genero gaietan adituta) tailer bat eskaini zuen, zeinetan hausnartu nahi izan zuen gaur egungo gizartearen errotuta dauden inkoherentziaz. Hitzaldian baloratu zituen, besteak beste, berdinen arteko tratu txarrak galarazteko hartu daitezkeen neurrien helburuak eta edukiak, bizitza askeago eta beteago edukitzeari begirako horietan azpimarra jarritz.

Bestalde, Ana Beaumont genero aditutako psikolo-

goak hitzaldi bat eman zuen sexu erasoen aurka erabil ditzakegun tresna eta estrategien berri emateko. Modu berean, erasoak identifikatu, galarazi eta horien aurrean ekiteko oinarritzko ezagutza eman nahi izan zuen.




Interes sozialekoak deklaratu dira 23 proiektu eta kultur jarduera

Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteri departamentuak interes sozialeko deklaratu ditu 23 proiektu, kultur aktibitate eta programa. Hari esker, Kultur Mezenasgoko Foru Legeak xedatutakoari eta zerga onurei heldu ahal izanen diete.

Interes sozialekoak deklaraturako proiektuen artean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertzen den moduan, Agoizko San Migel parrokiak herriko elizako ataria konpontzeko aurkeztutakoa dago.

Programa horiek guztiek "Mecna" zigilua erakutsi ahalko dute beren argitalpen eta publizitate eskarri guztietan, eta Kultura Mezenasgoko Legeak finantzatzeko aurrikusitako onura fiskalak izan ditzakete.



Agoitz Hiria XIV. Argazki Lehiaketa

Irailaren 20ko 13:00ak arte zabalik dago Agoizko Udalak antolatzen duen argazkilaritza lehiaketara lanak aurkezteko epea. Parte hartzaileek lanak aurkeztu beharko dituzte udal bulegoetan.

XIV. edizio honetan, bi modalitate ezarri dira:

1. Modalitate orokorra: nahi duen guztiari zabaliduta dago.
2. Herritarrentzako modalitatea: Agoitzen erroldatutakoek parte hartu ahal dute.

Agoitz izanen da argazkien gaia: paisaiak, hirigintza, ondarea, ohiturak, jaiak, jendea... Lanak originalak izanen dira, argitaratu gabeak eta beste edozein sari-ketara aurkeztu gabeak. Zuri-beltzak nahiz kolorekoak izan ahalko dira.

Honakoak dira ezarritako sariak: modalitate orokorrerako, 500 euro; eta herritarren sarirako, berriz, 300 euro.

Informazio gehiago: www.aoiz.es.



Irailean zehar euskara ikasteko dirulaguntzak eskatzea dago

Agoizko Udalak irailaren 30a arte zabalik dauka 2018-2019 ikasturtean euskaraz ikasten aritu direnentzako dirulaguntzak eskatzeko epea. Dirula-



guntzak, gehienez, matrikularen %50ekoak izanen dira, eta honakoak dira horiek jasotzeko baldintza: Agoitzen errolatuta egotea, matrikularen ordainketa justifikatzea eta asistentzia egiaztatzea. Informazio gehiago nahi duenak, bide hauek erabil ditzake eskuratzeko: Euskara Zerbitzura deitzea, tel 948 33 65 65, e-maila igortzea euskara@aezkoa.net helbidera edo udalaren www.aioz.es web-gunean.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak ere datorren ikasturtean euskara ikasi nahi dituztenentzako dirulaguntzak eskatzeko deialdia egin du. Eskabideak on-line tramitatu behar dira, esteka hau baliatuz: http://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/8245/Ayudas-para-la-ensenanza-de-euskera-a-personas-adultas-para-el-periodo-de-octubre-de-2019-a-septiembre-de-2020.

Halaber, iraila osoan zehar AEK-k zabalik dauka 2019-2020 ikasturteko matrikula egiteko epea. Informazioa nahi duenak, AEK-ra deitzea du: 948 76 40 87 edo 607 642 078 telefonoetan.

Kirol programako berrikuntzak

Zabalik dago, dagoeneko, Kanpondoak prestatutako 2019-2020 aldiko udal kirol programazioko ikastaroen parte hartzeko izena emateko epea.

Denboraldi berri honetarako aktibitate programa zabala prestatu da, kirol modalitate ugari eskaintzen duena. Pertsona guztiak kirola egin ahal izateko asmoarekin diseinatu da, baita lehiaketa eta txapelketetan aritzen direnentzako ere. Kanpondoan egiteko eskaintza, beraz, publiko guztiari zuzenduta dago, intentsitate eta maila guztietan aritzeko moduan.



Gainera, ordutegiak ere zabaldu dira, eta goizez zein arratsaldean egiteko aktibitateak eskaini dira. Batzuk bertutalki gidatutakoak izanen dira, eta beste batzuek, aldiz, monitoreek zuzendutakoak. Eskaintza "multzo" bat prestatu da, aktibitate guztietan parte hartu ahal izateko, norberak aukeratutako ordu eta egunetan joateko.

Informazio gehiago jasotzeko bide hauek erabil ditezke: telefonoz, 948 33 67 06 zenbakira deituta; e-mailez, info@kanpondoa.es-ren bidez; eta baita www.kanpondoa.es web-gunean ere.



Kostradaren XXI. Lasterketa



Jaiak hasi aurreko egunean ospatu zen Kanpondoak, Agoizko Udalaren eta zenbait enpresen laguntzarekin, antolatutako Kostradaren XXI. Lasterketa.

Ekaitzak ezin izan zuen lasterketa geldiarazi, eta 18:00etan hasi ziren haurren kategoriako probal-

Agoizko KE-ak belar artifizialezko zelai berria estreinatu du

San Migel Futbol Zelai Berria dagoeneko belar artifizialezko gain berria erakusten ari da, eta denboraldi honetan bertan entrenatzen hasi da autonomia mailako taldea. Belarra aldatzeko proiektuak lohiaren pilaketa saihestea eta dreinatze falta zuzentzea izan du helburu, eta udalaren laguntza jaso du.



Agoitz zeharkatu zuten "La Induráin" deitutakoak eta Iruñeko Itzuliak

Pasa den uztailaren 20an, «La Induráin» izeneko bizikleta martxaren 28. edizioko etapa bat Agoitzera hurbildu zen. 2.200 txirrindulari baino gehiagok zeharkatu zuten herria, eta ibilbidean martxa animatzeko karraketara ateratako jendearen txaloak jaso zituzten parte-hartzaileek. Pelotoian, txirrindularitzako mito izandako batzuk: Miguel Induráin, Óscar Pereiro, Joan Llaneras eta



diak, urduritasun eta emozio biziak tarteko. 19:15ean hasi zen kategoría absolutuko lasterketa.

Berrehun bat lasterkari elkartu ziren, erdia proba absolutuan eta beste erdia haurrentzakoan. Lasterketaren hasieratik buruan joan zen Aitor Etxeberria korrikalari gipuzkoarra gertatu zen irabazle. Emakumeen kategorian, Irene Guembe nafarra izan zen lasterketak zituen 4.600 metroak egiteko lehena. Herrikoen kategorian, Mentxu Rota e Iñaki Latasa izan ziren irabazleak.

Kanpondoak eta Agoizko Udalak eskerrak eman nahi dizkie Kostradaren Lasterketa berriro erre arrakastatsua gertatzeko laguntza eman duten horiei guztiei, hala nola enpresa kolaboratzaileei, eskerrak emateko.

Inbertsioa 325.000 eurokoa izan da, BEZa barne, eta Agoizko Kirol Elkarteak eskatu duen mailegu batekin ordainduko da. Gainera, Udalak 15.000 euro eman dizkio, Gobernuak udalari nahieran erabiltzeko emandako funtsekoa. Laguntzaren baldintzak arautzeko, udalak hitzarmen bat sinatu du Agoizko Kirol Elkartearekin. Horren arabera, udalak 15.000 euroko dirulaguntza emanen dio, urtero, mailegua irauten duen bitartean, elkarteak zorra amortizatzeko baino ez erabiliko duena.

Horretaz gain, inbertsio osoa estaltzeko, Kirol eta Gazteri Nafarroako Institutuari eta Nafarroako Futbol Federazioari dirulaguntza eskatu die.

Dani Clavero, besteak beste.

Iruñeko Itzuliko 33. edizioko 3. jardunaldiak Sarrigurenen izan zuen hasiera, eta gure herriko kaleak igaro zituen, bi aldiz, gainera. Pelotoiak bi aldiz igo zuen Agoizko gaina (hirugarren kategoriakoa), ondoren Eguesibarko Txoribar mendira abiatu eta azken igoera egin zuten.